


# JAIETAN INDARKERIA SEXISTARIK EZ!

## INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEKO LANKETEN INGURUKO ESKAINTZA



### HERRI JAI PAREKIDEEN ALDEKO LAN SAIOA

Festak eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira: errealitatearen adierazle kondentsatuak. Jaiek norbanakoa kolektibora hurbiltzen dute, prozesu honetan jokoan sartzen diren sentazio eta emozio anitzen bidez. Gure ustez festak bizitzaren erdigunean daude, baloreen munduarekin erabateko lotura dutelako; herriaren nortasuna, jendarte egitura eta hortaz, bertan ematen diren zapalkuntza eta diskriminazioak ere adierazten dituzte. Horrela, jaiek eta erritoei jendarte ordena iraunarazten dute: egungo hierarkia anitzak, hegemonikoak diren gizon eta emakume irudiak indartzen dituzte. Lan saio honetan gure herriko jaiak aztertu eta hobekuntzak proposatzeko estrategiak landuko ditugu Saioak 2 ordukoak izango dira gutxienez.

### INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO GUNEA

Emakumeak eta herritarrak orohar indarkeri sexistaz kontzientziatzeko helburuarekin jai eremuan kokatzen dugu informazio puntua dugu. Asmoa da emakumeek eta bereziki neska gazteek jaietan indarkeri sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzea eta babes zein elkartasun gunea irudikatzea. Indarkeriari aurre egiteko bitartekoak erraztu nahi ditugu. Erasotzaile izan daitezkeenei dena libre ez dela eta erasoak dauden kasuetan erantzuna izango dutela ohartarazteko gunea da, hala nola emakumeek beren burua defendatzeko duten gaitasunaz jabetzen laguntzeko eta bitarteko eta lanabesak eskaintzeko. Gutxienez 3 orduz jarri beharko da.

### ARRETA TELEFONOA ETA ESKUHARTZEA

Salaketa telefonoaren helburuak dira jaietan gertatzen den edozein intentsitateko eraso sexista identifikatzea, erasoak gertatzen diren momentuan jakitea eta ondorioz egoerari aurre egin eta eraso horiei erantzun soziala emateko aukera izatea. Telefono bidez salaketak jasotzeaz gain, emakumeak behar duena eskaintzen saiatuko gara: urgentziatzeko momentuetan eskuhartzea, informazioa eta aholkularitza eta aurrez aurreko arreta eta laguntza eskainiko dugu.

### AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA

Zer dira eraso sexistak? Nola pairatzen ditugu? Zeintzuk dira gure bizipenak honen aurrean? Nola identifikatu erasoak? Emakumeok pasibotasunaren ideian hezten gara eta babes beharra dugun pertsonak garelako sinesten dugu. Ideia hori hautsi eta gure buruak aitortu, egoeraz jabetu eta boteretzeko autodefentsa feminista lehenesten dugu.

Egin aurre indarkeriari sexistari. Nik, zuk, guk...ekin! Indarkeria sexistak dimentsio oso zabala dauka. Lan-saio hauetan indarkeriaren dimentsio zabala aztertuko dugu eta gure herrian aurre egiteko ditugun tresnei buruz hausnartuko dugu. 8 orduko saioak lehenetsiko dira.